

ANAITASUNA

BIZKAIA



194 zenb. 1970, * Abuztuak 30
Apartado 17 * GALDAKANO

EZAGUTZEN DOGU GEURE EGOERA EMAKUMEOK

Gutaz idatzitakoa asko da. Lan batzuek gure ezjakintasuna aipatzen dabe; besteak, oster, gure birtute aundiak goratzen. Ezagutzen ote dogu guri buruz esandako guztia? Edo zeredozer behintzat? Egia esan, gai honeetaz gizonak guk baino gehiago irakurten dabela uste dot, eta guk beharrezko dogu geure gaietaz esaten dan guztia jakitea.

Idazlantxu honetan, C. Castilla del Pino psikologoak "La alienación de la mujer" deritxon bere liburu-txoan emoten dituan ideia batzuk azaldu nahi ditut, guztiontzat jakingarri diralakoan.

Liburuxka hau iru zatik osotzen dabe. Honeexek dira:

1. Kontzeptu batzuen azalpena

Pertsona bat alienatuta dago, izan behar dauanez bestelakoa danean. Beste modu batera esanda: pertsona bat, berak egiten dauanagaitik da honelakoa edo horrelakoa; baina, beharbada, ez dau egiten—edo, obeto esan, besteak ez deutoe egiten uzten—norbera zetarako jaio dan eta haxe, egiteko hori bere kontra joan arren.

Gizon batzuek inori alienazinoa jartzean, gauza bat balitz bezala artzen dabe pertsona hori. Esate baterako, alienaturiko langilea bere jabearentzat, beronek nahi dituan zereginak egiten dituan gauza bat baino ez da; eta emakumea ere,* gizonarentzat gauza bat bihurtzen da. Gauza-bihurtze edo gauzifikazino hori, alienazinoaren ondorio bat baino ez da.

Ezin leiteke gizonik ez emakumerik bere klasetik kanpoan artu, klasearen baldintzak hain aundiak izanik, eurentarik ezin iges egin leikelako.

2. Gaurko emakumearen egoera

Gaurko egoera honetan, emakumea gizonaren menpean dago; eta honek bere gauza bat bezala erabilten dau, berari ondo datorkionerako.

Gizonarentzat, emakumea maitakeriazko zerbait (erderaz "objeto erótico") da. Beste urtenbiderik ez eukitean, emakumearen ardura bakarra zelán eta zein ondoen gizo-

narentzat maitakeriazko zerbait izatea da.

Gutxienak dira, pertsona legéz, mundu honetan zeredozer izan eta egin gura daben emakumeak. Gehienak gizonaren bizia eta gizonaren lanak eurenak egiten ditue, honela,



gizona errerealiztzean, eurak ere* euren nortasuna errerealizatuaz. Gizonak gauzak dagozan moduan ondo ikusten ditu, eta ez dau ezertxo ere aldatu nahi.

Emakumearen lana, etxetik kanpokoa, liberazino bidea erraztuteko modu bat izan leiteke; baina gizona horren bildur da. Orain ez dago berarentzako beste lanik, eta, emakumea ere lanean jartzen baldin bada, gizonak etxean gelditu beharko ote leuke? Horregaitik ondo jagoten dau feminismo faltsua. Horixe egiten dau, emakumea ama izateko jaio dala esatean, ama izatea munduko gauzarik aundiena dala, eta abar.

Honeek ez dira ideia batzuk baino, C. Castilla del Pinok bere liburu-txoaren erdi aldean, beste gauza interesgarri askoren artean, esaten dituanak.

3. Emakumearen liberazinoa

Orain arte emakumeen eskubi-deen aldeko mugimendu eta ekintza guztiak, okerrekoak izan dira. Izan ere, emakumea gizonagandik aparte ipinten dauan ekintza ez da zuzena, emakumea pertsona desbardin bat balitz bezala kontsideratzen dau

eta. Horregaitik diskriminazino hau emakumearen kontra doa, eta ez alde.

Emakumeak, gizona lakoa dan ezker, haregaz batera lortu behar dau bere liberazinoa. Horretarako, orain dagozan estrukturak aldatu egin behar dira. Egiteko lana, aundia da; baina arazo honetan emakumeak aurrera begiratu eta berari ondoen dagokiona zer dan ikusi behar dau, pertsona bezala bere eginbeharra betetzeko.

Sistema sozialistatik kanpora, ezina da emakumearen eginbehar hau betetzea, beste sistema guztiak haren alienazinoa erraztu baino ez dabe egiten eta. Sozializatzeko osoan, askoren artean artu beharko geunke emakumeok, orain banazean* artzen ditugun erabagi eta lan asko.

Mari Anjeles Zarraonaindia

ZORNOTZA

Erriko ikastola, orain arte Berriotxoan ikastokian egondakoa, Larrako komentura aldatzen da. Komentu honetan, euren karre-rako urte bat egiten eben lehen Karmeldar frailegaiak. Aurten, ez dakit zegaitik, ez datoz frailegaiak. Eta, eurak utzitako lekua betetzera, ikastolako ehun ume inguru datoz. Leku ederra be-netan, umetxoei tokatu jakena. Ez neuskio akats bat baino imi-niko: erritik urruti samar dagoala.

Eta Larrako komentua aipatu dodan ezker, burura datorkit urte bi dirala Ama Birjina koroatzeko gertuta egoan koroa ostu zana. Emongo ote deusez barriro Karmeldarrei?

Leungane

BILBO

Txistularien akademia

Amaitu da 1969-1970 ikastaroa. Danetara, 62 ikasle ibili dira txistua ikasten, erdiak neskek. Irakasleen eritxiz, ikasleak ederto lan egin dabe eta pozik dagoz.

300 txistulari gure urian

Bilbon bizi diran txistulariak 300-dik gora ei dira. Hauxe esan deusku Boni Fernandezek, Aiuntamentuko txistulari taldearen zuzendariak. Bizkal guztikoak 900 inguru dira, eta Euskal-errikoak 2.000-tik gora.

Gure txistularien disko barri bat

Aiuntamentuko txistulariak euren lehenengo diskoa argita-ratu dabe. Alde batean Bizkaiko Aurrekua dator, eta bestean euskal dantza soltua. Hauxe da Bizkaiko Aurrekuaren lehenengo grabazioa.

Olaeta Balleta barriro Ameriketara

Iraillean*, Olaeta Balleta barriro doa Ameriketara. Oraingo ibilaldi hau iru ilabetekoa izango da, ta 60 jaialdi inguru eskal-niko* ditue USA-n eta Canadian. Joan dan urtean, bardin antzeko ostera* bat egin eben, eta jende asko joan zan euren dantzak ikustera. Los Angelesen, 8.000 ikusle izan zituen.

Xabier Gereño

ELGOIBAR

Artikuririk onena

ANAITASUNA, 192 zenbakia. Gaurko artikuririk onena auke-ratzean, ba ditugu gure kezkak. Eta ez gure artikulua aukeratzean, gure esan nahia ez ulertzean baino. Baina kezka ta guztiz ere, EZ NATOR BAT aukeratzen dogu. Ezin balleiteke ez demokrata eta ez neutral izan, egaleko jaun batzuei jaramon eginaz. Erdi bat «urratu» euskuen, eta hori betetzen ez dabenak ezin leite-kez neutralak izan. Hau betetzen dabenei, horreei bai esan lei-tekioela neutral dirala, baina ez bestela. Hauxe da, behini behin, gure eritxi apala.

Bigarren artikulutzat, beste idazlan bi aukeratzen ditugu: EUSKAL LITERATURAN BEHAR DUGUNA eta AGIRRE SARIA. Gutariko gehienak ere eritxi horreekin bat gatoz.

Barri emolleetan Barakaldokoa aukeratzen da.

Erriko jaiak

Jai giroan sartu gara, eta, entzun dogunez, asiak dira anto-laketak. Inolz izan ez doguna izango dogu aurten: Umeen tan-borrada.

ANAITASUNA 2

Itxura danez, umeak ere haintzat artzea pentsatu dabe; baina ez dira konturatu, hainbat eta hainbat euskaldun ume dagozala. Horreentzat noizko? Dana dala, etortzen zareenok eta bertokook ondo pasa.

Taldeko Beste Marisabel

MUNITIBAR

Lehengo batean, osteratxu* bat egin neban errira, eta erriko eskolan lanean ebiltzala konturatu nintzan.

Bertara joan, eta halan zan izan be, Iturrikoako Juan Jose lanean ebilen eta. Eskolako leiho ta ate guztiak pintatu behar zituala esan eustan, eta Reinaldo ta biok ebiltzala lan horretan.

Parte bat egina eben, eta oso dotore emoten eban.

Zoritxarrez, ormak ez ei ditue pintatu behar. Premina ba dauke, ba, estufaren keaz total zikindurik dagoz eta. Orain egur-rezko estufarik ez da erabilten, butanozkoa baino; eta aurten behin dana pintatu ezker, oso dotore geldituko litzake eskolea, eta luzarorako gainera.

Eskolea egin zanetik, holantxe egon da gaur arte. Amabi urte ba dira. Zorionez, berandu izan bada be, etorri jake euren apaintzeko ordua.

Erramon Gorriagoitia

ARRATIA

Apatxartekoa

Oraindino denbora gutxi dala, arratiar eta beste mendizale askok, Gorbea mendia bi ilabete baino gehiagoan euki dogu zarratuta, apatxartekoa edo glosopeda dala ta. Donontzat ekarri ditu kalteak, abere ugazabentzat batez ere. Zenbat eta zenbat il ote dira? Ez da erraza jakitea. Gorbea aldetik ibili garean guztion lagun bateri, ia ardi guztiak il jakoz. Eta, hori gutxi balitzan, bera ere hospitalean dago, auto batek jo ta zaurituta.

Igorreko denboralea

Abuztuaren 4-ean, Igorretarrei, zerutik jausitako arriak 30 bat milloiko kaltea egin deuse. Laguntzarik egongo ote da? Eta egongo balitz, nok eta zelan banandua izango litzake?

Jaiak

Jaiak dirala ta ez dirala, ez daukagu aspaldi honetan bake aundirik. Urrunago joan barik, or daukaguz Dimako aurtengo jaiak. Gazte mordotxo eder batek dantzariak, bertsolariak, kantariak eta abar ekarri gura ditu, beste errietan egiten dan antzera. Baina Udalekoengandik* diru laguntza andirik izan ez daben ezker, gauza aparteko barik geratu behar. Eskerrak, erriko jaiak bertso ta abesti ederrakak biribildu zirana. Eta jazoera hau Di-mako auzunerik gehienetan gertatzen da urtero. Dima «diferente» ote da?

ZAMALAKOTARRA

Uztailaren* 5-ean, Arantzazuko errian, kantarien txapelketa bat izan zan. Areatzako* Patxo gelditu zan txapel-dun, eta Otxan-dioko Txomin Bengoa bigarren.

Santiago egunean, jai polit bat egin zan Ipiñaburuko auzu-nean. Bertako gazteak, obeto ezinean, euskal antzerki bat egin eben. Abeslariak ere* izan ziran.

Zeanuriko frontolan jokaturako pelota partiduaz ere jendea jakitun imini beharra dago. Begira, ostera, Esteban «Amalau» eta Antonio «Txato»-ren eskuak.

SEBAS

Gure hizkuntzak gaur dadukan beharrik handienetako bat batasuna da, zalantzarik* gabe. Horretarako arrazoi asko jartzen dira, denak balio dutenak.

Ekonomiaren aldetik, herri xipi bat gara, eta ez dezakegu euskalki bakoitzean ez ediziorik ez gramatikarik ez beste hainbeste gauzarik egin.

Beste alde batetik, Herri bat gara, nahiz ez dugun oraingoz estruktura herriko bat. Hori dela ta, gure Herriak hizkuntza batzaile bat behar du, ofizialtasunik eduki ez arren, eta beharbada gehiago horrengatik. Baina, batzaile izateko, hizkuntzak berak ere bat behar du izan.

Beste arrazoi bat ba da oraindik, guttitan erabiltzen dena, baina nire ustez garrantzi arras handia duena. Baionako asteen agertu nuen. Gaur egun euskerak bizirik jarraitzea nahi badugu, eta hori lortzeko darduzkagun indarrak zeintzuk diren eta non dauden aztertzen badugu, zuzenki helduko gara nire ustez erabaki batera: Euskal ikasleak, haur nahiz gazte, direla euskeraren geroaren sustraia.

Lehen, euskera hitz egiten zen tokietan, hitz egiten jarraitzeari begiratzen zitzaion. Euskal irakurleak, euskal kultura eskatzen zutenak, euskerari garrantzia ematen ziotenak, euskera beren etxeko sukaldetan ikasi zutenak ziren. Gaur, ordea, ikastolek eta beste gainerako kultura giroak aldatu egin dute hau. Adibidez, Iruñean (ni Iruñekoak naiz) lau mila lagun joan izan dira, "Ez dok amairu" entzuteran, eta talde honen diskak Nafarroako beste inon baino gehiago Iruñean saltzen dira gaur. Esango zait, Nafarroako hiri nagusia delako. Eta egia da. Baina horrexek, hain zuzen ere, ematen dio garrantzia; ez da atxakia bat. Lehen euskerak Nafarroako ipar aldean bakarrik zuen garrantzia, hor bakarrik hitz egiten zelako. Baina gaur ba du garrantzia Iruñean; gero ta gehiago, gainera. Zeren baitakigu, euskeraren salbazioa kultura bidetik bakar bakarrik irabaz dezakegula.

Eta azterketa hau egin ondoren, argi agertzen zaigu zein den eta nolakoa den euskeraren batasunaren beharra. Euskeraren batasuna geroari begira egin behar da, ez gure nahiz beste inoren gustuoxari begira. Horrengatik, euskeraren batasunak hizkuntza egoki bat eman behar dauku, geroko beharrei dagokiena. Eta hau teknikoek bakarrik egin dezakete. Herriak eskatzen duen erara eginen omen dira aldatetok. Hori eta horren antzekoak esatea, huskeria bat da.

Hemen Nafarroan ba da elkarte bat, "Institución Príncipe de Viana" deritzana, eta euskeraren etorkizunerako sortua izan dena. Elkarte honek euskeraren irakaskintzara zuzendu du bere lana. Eta, diotenez, oraintsu erabaki du, bere lan guztietan euskera batua beharrez erabiltzea. Bai ikastolan, bai eskolan, bai bere aldizkarietan, bai beste agerkari guztietan.

P. Bordaçarre - ren "BERTERRECH" pastorala

Aurtengo Pastoral Zuberoko Ligin* izan da abuztuaren 2-an, ilaren lehenengo igandean*. Urrengo igandean Atarratzen* izango zala entzun genduan.

Ligiko barri hau ZERUKO ARGIA-n irakurri genduan, eta hara joatea pozez beterik erabagi genduan. Baina, irakurle, gertakizunen bat Ligin dala entzuten badozu, kontuz! Bizkaitik joaten bazara, bezperaz urten behar dozu. Bestela, batez ere auto txiki batean joan behar badozu, txarto ibiliko zara nonbait. Ligi erri txiki bat da, eta maparik gehienetan Licq-Athérey izenagaz agertzen da. Bizkai aldetik errixka horretara joateko, denbora nahikoa behar da. Lehenengo Maulera* joan behar dozu, eta handik ego aldera jo. Gero ta gero ere, eldu ginan bertara, antzerki xarmangarri* ha ikusteko.

Atzeko aldean mendia, aurreko aldean eliza, zelaitxo berde ta eder batean egiten da antzerkia. Eguzki ederra, kolore asko. Euskalerrian, Zuberoa benetan da kolorezko lurraldea. Kolore horreek, dantzari bikain horreek... dana zan mugimendua, bizia. Musikalariak atzeko aldean jarrita, egon ezinezko txori batzuk bezala; ta ezker aldean, deabru gorri bat dingoizka. Pastoral bertean, dantzak eta «sataneriak» ere* emoten dira. Pentsa leiteke, sorginak ere (bereiziki* lurralde horretako sorginak) ba daukela zerikusia antzerki horretan. Gaur egun eta gure oraingo mundu honetan, antzerki hau, zoragarria izanez gainera, gauza guztiz apartekoa da. Eldu ginaneko, jende asko egoan; gehienak bertakoak. Gipuzkoako lagun batzuk ikusi genduzan. Lapurdiko, Larzabal jauna, Pastoral arloan oso aditua. Bizkaitik geu bakarrik joan ginan.

Aurtengo Pastoral, «Berterrech» izan dogu. Egilea: P. Bordaçarre, Etchahun izengoitz ezagunagoa. Antolatzailea: A. Bordaçarre, haren semea. Biok Irurin* jaoiak.

Lehenengotan, gauza triste bat ikusi neban. Orain iru urte dirala, Maulen «Txikito de Kanbo» antzerkia ikusi ne-

Euskera batua, Euskaltzaindiak agindu bezala, batzaile da; eta gainerako guztiak bereiztaile* eta tamalezko.*

«Príncipe de Viana»-k honelako erabakirik hartu badu, ongi etorria bedi.

banean, programa euskeraz eta frantsesez egoan. Aurten, ostera*, frantsesez bakarrik. Ez dakit zegaitik. Gure Pastoraletan, gaia ez da hain interesgarria izaten. Beti burruka bardintsuak ikusten ditugu. Guk ikusi genduan Pastoral honetan, Berterrech-ek (erriko mutil batek) Margaita maite dau, eta neskak ha ere bai. Baina Beaumont-ek (jauntxo batek) Berterrech il egiten dau, gero Margaita esposatzeko. Margaitak Berterrechen gorpua topatzen dau. Holan, iltzailera nor dan ezagun egiten da errian, eta, azkenez, Parisera joatea erabagiten dabe erritarrak, Frantziako erregeari justizia egiteko eskatuaz. Charles VII., atxakia honekin, Zuberoa menperatzera dator. Beaumont, Zuberoa jausi ondoren, Aragonera doa, bere anaia ezkonduagana.

Pastoral honetan gauza interesgarriak ikusi leitekez. Esaterako, Beaumont horrak, asikeran, txartzat artu eban erregea. Baina, korapilo aundi horretan, ez da erraz ikusten zein dan benetako jokoa eta egilearen asmoa. Egia esan, Pastoral guztietan gauza bardintsuak agertzen dira beti: Txarrak-Onak (gorriak-urdirak), eta zenbatgura burruka. Manikeismo kutsua dario guztiari, eta honetan ere ba dauka zerikusirik Zuberoan izan zan errepresinoak. Ta, jakina, Ona ateratzen da beti nagusi. Ez dago historiako aririk. Gauzak ondo konpontzen dira, jendearen atsegingarri.

Antzerkilariak, ezelango kezkarik gabe, bene-benetan artzen ditue antzina ko edozelako personajeak.

Gai hau, oso jakingarria dogu; eta oraindikarren, Larzabal izan ezik, inok ez dau gure artean gauza andirik egin, Pastoralak aztertzeko. Kronika hau amaitzeko, azken puntu bat: antzerkilari legez, ez da emakumerik agertzen Pastoraletan. Ikusten dira neska batzuk, hori bai, baina egunero jantziakin, tokia garbitzen, ekitaldien ostean. Gaur egun ere hori zegaitik egiten daben jakin gura izan genduan. Ba dakigu, Larzabalek egindako Pastoral barrietan, emakumeak ere agertzen dirana; baina Zuberoan, errian, ez dira sekula agertzen. Antzerkia amaitutakoan, Etchahunen gana urbildu* ginan. Pozez beterik onartu ginduzan, batez ere bizkaitarrak, bilbotarrak ginala jakin ebanean. Eta, beste gauza batzuen artean, Pastoraletan emakumeak zegaitik agertzen ez ziran itaundu geuntsan. Ez dakit ondo ulertu eban ala ez gure izkera. Gu ahalegindu ginan berari ulertzeko. Baina agiri agirian egoan, berari asko kostatzen jakona. Halan eta guztiz ere, hauxe bakarrik esan euskun: «Tradizinoa da».

Beraz*, tradizinoa bada, ez pentsa, neska irakurle, Zuberoan, oraindik behintzat, Pastoral egiteko artuko zaituenik.

EUSKALDUNGOA

Bertsolariak egon izan dira: Adunan, Azpeitiko Lizaso eta Osintxuko Gorrotxategi; Albizturren, Lizaso ta Uztapide; Mallabian, «Asuntze» ta Garmendia.

OJD (Oficina de Justificación de la Difusión) **alkarteak** adierazo dauanez, Euskalerrian argitaratzen diran erdal egunkariak jarraiko tirada honeek ditue: Iruñeko Diario de Navarra-k, 32.817 ale; Bilboko El Correo Español-ek, 75.610; Bilboko La Gaceta del Norte-k, 83.828; Donostiako La Voz de España-k, 42.794. Espainian tiradarik aundiena daukan egunkaria Barcelonako La Vanguardia Española da, 220.165 alerekin.

Iru euskaldun egin dira gizon ospetsu TVE-n: Urtain ukabilkaria, Amestoy izlaria eta Jose María Iñigo kantari modernoan atontzaile ta zuzendaria.

«**Urtain, el rey de la selva**», Manuel Summers-ek egindako filma, Italiako «XXXI Mostra Internazionale d'Arte Cinematografico» izenarekin ezagutzen dan biltzarrean aurkeztua izango ote dan zabaldu da.

Manuel Iradier Arabar gizon ospetsuaren bitzta zinean agertuko da laster, Manuel Picazo jauna egiten ari* dan pelikula bateri esker.

Jose Lasak itzaldi bat emon dau Zizurkilen (Gipuzkoan), «Ikastola zer dan» gaiari buruz, abuztuaren 12-an.

«**V Gran Premio de Pintura Vasca**», 1965-ean sortutako sariketa, datorren irailean* ospatuko da Donostian. 1965-ean, lehen saria Ramiro Arruek irabazi eban. 1966-an, Jose Luis Zumetak. 1968-an, Ortiz de Elgueak. 1969-an, ez zan sariketarik egin.

«**Fiestas Euskaras**» izeneko Donostiako jaietan, irrirtzilari ta txalapartarien sariketak izango dira. Sariak, 3.000, 2.500 eta 2.000 pezetakoak izanen dira.

«**Ibar Ixilean**» izenburua daroa Antonio Valverde («Aialde») zanek egindako liburu agertu barriak. Aialde jaunak ez ekian euskerarik umetan, ta gero ikasi eban. Lakuona, Euskaltzaindiko lehendakari izanak, egiten deutso itzaurrea. Zenbait* artikulu Picasso, Gurlidi ta Oteizari buruz eginak dira. Arzac, Juan Basurko, «Orixe», «Xenpelar» eta beste batzuk ere* agertzen dira.

«**Agora Sarla**» ere antolatua izan da. Nahiz erderaz nahiz euskeraz bidaldu leitekez idazlanak: nobelak, poesiak eta antzerkiak. Nobela saria, 40.000 pezetakoa da, eta lanak 100 folio gutxienez euki behar ditu. Poesi saria, 30.000 pezetakoa; eta lanak 600 bertso gutxienez euki beharko. Teatro saria, 25.000 pezetakoa. Lan gutziak, inoiz argitaratu bakoak. Lanak zuzenbide honetara bidaldu behar dira: «Agora», Víctor Pradera, 10 - San Sebastián.

«**Atano ta Estrada bertsolariak**» izenburuarekin argitara emon dau beste liburu bat Antonio Zabala jesuitak. Atano bertsolaria 1866-an jaio, eta 1939-an il zan. Estrada, barriz, 1867-an jaio eta 1912-an il. Lehenengo, «Atano» pelotariaren aurretikoa da.

«**Estudios de Arqueología Alavesa**» liburuxken laugarren alea agertu barria da. Arabako Diputazioak argitaraturiko liburuxka honetan, jarraiko artikulu honeek datoz: «Arqueología y arqueólogos alaveses», «Algunas nuevas hachas de metal, localizadas en Alava», «Las cuevas sepulcrales de Okeburu y Arratiandi» (bizkaitar Juan María Apellanizek egin), «Etnología prerromana del Pireneo Occidental», «Alava prerromana y romana: estudio lingüístico», eta «Las estelas romanas».

«**Fontes Linguae Vasconum**» aldizkariaren 4. alea agertu barria da. Bertan idazten dabenak: M. Holmer, G. Silnitski, Terence H. Wilbur, Luis Mitxelena, Jose Maria Satrustegi eta Angel Irigarai. Aldizkari hau «Institución Príncipe de Viana» alkarteren ardurapean argitaratzen da. Aldizkari hau irakurritakoan, hauxe esan eban Martin Almagrok, «Museo Etnológico Nacional»-aren zuzendariak: «Internazionaltasun pisua daukan aldizkari bakarra dogu hau».

«**La escapada del sol**» izenburuarekin egingo dabe pelikula bat, Zornotza, Sopelana, Busturi eta beste erri batzuetan horretarako behar diranak atondurik. Mikel Zugatza izeneko gazte bat da protagonistaren izena. Zuzendaria Juan M. Inzunza, eta boza Estitxurena.

Lekarozen (Nafarroan), Ipar Amerikako 236 gazte ari* izan dira, Espainiako izkuntza ta kultura ikasten. Euskal alfabetatze taldekoak asarre antzean ikusi genduzan, uda denboran euren ikastaldiak koleji horretan egin ahal izateko, laguntza eske joan ziranean, arrera onik baino traba gehiago aurkitu eben eta.

«**Itxaropen**», Legazpiko kantari taldea, bertan behera galduko ote dan entzun dogu, eurotariko bat, onena nonbait, Nafarroako Leitzara baitoa* lanera.

Natxo de Felipe ta Itziar, neska-mutil gazteak, alkarrekin kantatzen asiak dira. «Jalaldi aundietan abestuz gainera, talde txikien aurrean eta alkarrizketa eginaz kantatzea nahi dogu», dinoe Natxok eta Itziarrek. Natxok, LUR etxearekin disko batzuk ateratzeko asmoa dauka.

Estitxu, Julian Granados eta Julio Igleasiak Saturraranen (Gipuzkoako Motrikun) Jai Toki baten inaugurazioan parte artu dabe.

Orendainen (Gipuzkoan), Andra Mari jaietan, Garmendia, Odriozola ta Muñoa egon ziran bertsotan, eta «Enarak», Benito Lertxundi ta Julen Lekuona kantari.

Barakaldon (Bizkaian) «Altos Hornos» izeneko lantegi ospetsuak behar dan baimena jaritxi* dau Etxegintzarako Ministeriotik, 302 bizitza etxe saldu ahal izateko. Erosleak oraingo errendadoreak izango dira.

Gazolinaren salneurria Europako nazino batzuetan: Suizan, 10 pezeta; Austrian, 10,45; Espainian, 11; Alemanian, 11,38; Bretainia Aundian, 12,12; Portugalen, 15,77.

Armintzatik Bakiora autobide barri bat inauguratu da abuztuaren 15-ean. 12 kilometro ditu, eta 60 miloe pezeta kostatu da.

Bilbo-Behobiako autobidean aurrera doaz obrak. Basaurtik Zornotzarainoko zatia, 14 kilometrokoa, datorren urteko ekainean* inauguratuko da. Eta jadanik* 250 miloe pezeta gastatu dira.

Pedro Fernández de la Fuente, Iruñeko hospitaleko midikuak, begietako kornea edo begizuringoaren lehen aldizko aldaketa bat egin dau, joan dan ekainaren* 16-an.

Lizarra* inguruan, igaz baino gari gutxiago batu da aurtan.

Erronkariko mendietan, aurtengo urtean, 4.000 kilo gaztal egin dira, igaz baino 1.000 kilo gehiago. Ardiak eraisteko* sasoirik egokiena, malatzaren erditik ekainaren erdirarte da. Ardi bakoitzak egunean 0,150 litro esne emoten dau; hau da, 6 bat litro sasoi bakoitzean. Guzti horrekin kilo bat gaztal egiten da, gutxi gora-behera.

Erribehera aldean (Tudela inguruan), 703.330 dozena alkatxofa artu ditue azken urte honetan. Uzta* eder honen balioa, 5.725.350 pezetakoa izan da, alkatxofa bakoitza 8,10 pezetan saltzen da ta.

Michel Labeguerie, Kanboko midikua, eta euskal musika egile ospetsua, bihotzeko minez gaixorik dago.

Gasteizen, Idi probat egon dira abuztuko jaletan. Arriak 1.800 kilokoak izan dira, eta idiak 1.050 kilotik beherakoak. Zazpi idi pare parte artu eben.

Deban, «Soarte» arrijasotzaile ospetsuari omenaldi bat egin jako abuztuaren 15-ean. Jai honetan parte artu izan dabe: Endañeta, Mendizabal eta Usategieta; arrijasotzaileak; Arria ta Polipaso, aizkolariak; Luis Atxaga ta Justo Gallastegi, arrijasotzaile zaharrak; Lezoko dantzariak; Uztapide ta Lasarte bertsolariak, eta Iturralde ta Agerre arrijasotzaileak.

Erri Gaztediak bere baitan aurrera daroan eginkizuna, hau xe da: aztertu euskal gazteen egoera, karakteristikak eta aspirazioak, gero euren alderdi guztiak osorik lantzeko.

Urteotan zehar gazteen giroa bizi izan dogu errietan, eta, beste gauza askoren artean, gauza batekin gehienbat ohartu* gara: gazteak batasuna behar dabela, euren bidea zabaltzeko eta gaurko munduari erantzun jator bat emoteko.

Aspaldiko urteotan pauso banaka batzuk emon izan ditugu: urte barruan sortzen diran arazoak mahai gainean jarriaz; batzar eta ikastaldietan; lanaldia aurrera ateratzean; gaztedi eta erriaren egoera analizatzean; Elizaren egoera, jokaerak eta dituan kontradizioak aztertuaz, eta abar.

Artuemon honeetan, pozarren adierazoten dot, mugaz harazkoak izan ditugu gure artean. Euren aportazioa guztiz baliotsua izan da, ekintza alkartu batzuk baseko jendearekin egitea proposatu euskuen eta. Proposamendu hau dala ta, garrantziko pauso bat emona dogu. Uztailaren* 12-an, 85 bat gazte alkartu ginan Gipuzkoako errixka batean: Bizkaitik 32 (autobus batean joan ginan), Nafarroatik 6 edo, Gipuzkoatik 30 bat, eta Ipar Euskalerritik 15 bat. Araba aldetik, zoritxarrez, ez genduan lagunik izan. Nortzuk uts egin ote dabe? Eurak ala guk?

Programa erraz bateri jarraiturik, euskal gazteak bizi dituen arazoak aztertu genduzan: giroa, problematika, erri kontzientzia, ekonomia, kultura, eta abar. Girotze on bat lortzeko, bazkalordua eta ostea aukeratu zan. Laguntasunik asko izan genduan horretarako: bertsolari, abeslari, txistulari ta dantzariak. Egun onuragarria* benetan.

R. M. A.

ELIZAKO BARRIAK

Frantziskotarren artean auteskundeak

Uztailaren* 14-ean Arantzazun alkarturik, euskaldun Frantziskotarren artean jarraiko nonbramentu barriak egin dira: Probintziako nagusia, Marcelino Asurabarrena. Nagusi urrengoa, Benito Mendia. Kontseilariak: Celestino Solaguren, Fernando Legarreta, Jose Agustin Elustondo, Jose Antonio Abrisketa eta Xavier Andonegui.

Gipuzkoako komentuetako nagusiak: Arantzazukoa, Jon Zubieta, Mondragoekoa, Jose Mari Garaialde. Donostiakoa, Fernando Legarreta. Tolosakoa, Ignacio Sudupe. Zarauzkkoa, Feliciano Eizaguirre.

Bizkaian: Bilbokoa, Jesus Biain. Bermeokoa, Pedro Zubizarreta. Forukoa, Jose Antonio Gandarias. Durangokoa, Celestino Solaguren.

Arantzazuko batzar honek ilabete inguru iraun izan dau. Egiten ziran lanen barri emoteko, orritxu batzuk bidaltzen izan dira komentu guztietara, euskeraz eta erderaz idatziak.

Artutako erabagien artean, urrengo hau agertzen da: Aurreantzean, Erdalerritik datozen frailegaiak, Arantzazun barik, La Aguilera-n, Aranda de Duero aldean, egingo ditue lehenengo ikasketak.

Trinitarioen nagusi barria

Euskalerriko Trinitarioak, Probintziako batzar nagusian, Aita Jose Gamarra, Trokoniztarra (Arabarra), autatu dabe nagusitzat. Batzar horretan, beste gauza askoren artean, gaurko munduak erlijiosoei eskatzen deutsezan barriztapenak estudiatu ziran.

Tabera Kardinalaren urrezko abade ezteiak

Iruñeko Gotzain dan Tabera Araoz Kardinalak eta bere adiskide dan Aita Peinador, Salamancako Unibersidadeko irakasleak, abuztuaren 15-ean ospatu izan ditue abade egin ziraneko urrezko ezteiak, Yusteko monasterioan.

Frai Juan Crisostomoren urrezko ezteiak

Abuztuko Andra Mari egunean, Gasteizko Karmeldarren etxean ospatu ditu abadetzako urrezko ezteiak, Juan Crisostomo fraileak. Zeanuriko semea da. Zornotzako Larran eta Begoñan ikasketak egin ondoren, Indian egon zan misiolari. 1948-garren ezeroztik Gasteizen bizi da.

«Meza barria»

Izenburu honekin argitara emon dau Jose Domingo Ugartetxea Karmeldarrak liburuxka bat, mezarako kantu eta organu laguntzarako doinuekin. Ale nagusia, doinuekin, 50 peseta. Ale txikia, doinurik gabe, 5 peseta. Eskatzekotan: PP. Carmelitas, Marquina, Vizcaya.

«PATXO» - REKIN ALKARRIZKETAN

Arratia aldean hain entzute aundia daukan Patxo gaztea ANAITASUNA-tik presentatzeko asmorik onenagaz, jarraiko alkarrizketa hau izan dogu berarekin.

—Patxo, non eta noiz jaio zinan?

—Diman jaio nintzan, 1950-eko maiatzean. Orain, Areatzan* bizi naiz.

—Zure abots ederragaz, erderaz abestuta, fama gehiago lortuko zenuela jakinik, zelan asi zara euskeraz kantatzen?

—Ez dot uste, erderaz abestuta, fama gehiago lortu nelkenik. Zihur nago euskal abestiak, erdal abestiak Iqkoxeak edo obeak izan leitekezala. Euskal diskoak indarra nahikoa dabe, «merkatu nazionalean» benetako garaitza lortzeko. Horrela, euskalduna naizari ezker, euskeraz abestuko dot.

—Abeslari legez, zeintzuk dira zure orain arteko egintzak?

—«Primer Festival Ancla»-n abestu bot, txapeldun geldituaz. Arantzazun egin zan Arratiako Txapelketan ere, txapeldun gelditu nintzan. Gero, jaialdi askotan abestu dot.

—Zein da zure asmoa?

—Abestiaren bidez, nire eritxi ta gurariak azaldu nahi dodaz neure erriaren aurrean.

—Diskoak noiz?

—Diskorik ez dot aterako, neure abesti mordo bat izan artean. Eta laster uste dot izango ditudala. Orduan, guztion laguntasunarekin aterako ditut.

—Ze eragozpenik aurkitzen dozu, zure elburuak jarixteko?

—Lehenengo, euskeraz egiteko dodan erraztasun eskasa. Gero neure euskalzetatasuna ere ostopo bat izaten jat askotan.

Uste dot, ondo bereizten* dodala politika zer dan eta zer ez dan; eta oso mingarria jat, askok ez bereiztea. Eta horretara, sasi-joko hori eginaz, konfusino aundiak sortzen dira.

—Zure eritxiz, zelan dagoz une honetan euskal abesti eta abeslariak?

—Niretzat abestia, letrea eta musikea da. Euskal abestiak, letraz oso ederto dagoz; baina musikaz, ez hain ederto.

—Zein da zuretzat euskal kantaririk onena?

—Abotsez, Estitxu; baina, osotasun batean begiratu ezker, meritu ikaragarria dabe Lertxundik, Lekuonak eta Lurdes Iriondok.

—Diru aldetik zelan zabilta?

—Barkatu. Jazoera bat azaldu gura deusut. Lurra jota geratu nintzan, Zornotzan abestu nebanean. Nik zentimorik ere ez neban artu. Entzutera sartzea, oster, ordaindu egin behar zan. Eta ez noakizu beste gauza batzuk esatera. Hemen nozu, kitarra on bat erosteko dirurik ez dodala. Poltsea bero dozuonok ba dakizue, propinak, nahiz eta aundiak ez izan, pozik artzen dirala. Horregaitik ez zaitue inok espetxera eroango.

Hona hemen, argi ta zuzen, mutil honen egiazko erantzunak. Ez dago ezer esan beharrik.

SEBAS

Obanosko Misterioa

Obanosen (Nafarroan), Iruñetik Lizarrarako* bide erdian, San Gillen eta Santa Feliziaren Misterioa ospatu izan da abuztuaren 20-tik 27-rarte. Misterio honek ba dauka zerikusia Santiagorako Bidearekin. Iluntziko 8 t'erdietan emon izan da, 2.000 ikuslerentzat tokia dagoan erriko plazan. Gioia, Santos Begiristainena da. Itzak, Manuel Iribarrenenak. Doinua, barriz, Luis Morondorena. 600 bat aktorek parte artu dabe; guztiak erritarrak.

Imanol Aldaregia, artzipreste barria

Abadeak zuzenki izentaturik eta Gotzainak onarturik, Billafranka-Segura ingururako artzipreste Imanol Aldaregia izango da aurrerantzean. Orain arte Lazkanoko abade laguntzailea izan da.

Bernardino Arroitauregi Karmeldarren urrezko ezteiak

Aita Bernardino, Karmeldarren artean Aita Teodoro, Markinan jaio zan. Larran eta Begoñan egin zituan bere ikasketak. Gasteizen irakasle izana da, eta Bilbon Karmeldarren nagusia. Orain Maliañon (Nafarroan) dago, eta 1921-ean apaizgoa jaso ebaneko 50 urteak ospatzen ditu.

BEKEA

Larresoro: SUSTRAI BILA: Irakur Sail.

(euskera batuan)

Kritikatxo hau humorez hasten baldin badut, zilegi* izanen zait gero azkenean desumorez bukatzea. Zeren Larresororen goitizena atzean ezkututzen den euskaltzale fin eta zintzoa jakintsuaren aipuak irabazten ari da azken bolada honetan, batez ere Bordeleko unibertsidadean ematen dituen euskal klaseak gatik, honela, gure idazle hoberearen sonari orain gramatikari burutsuarena gaineratzen diola. Eta denok dakigu nola jakintsu klasikoei sustraiak eta gainerako tuberkuluak biltzen zituzten bere janarizat. Ez da harritzekoa, beraz, Larresoro bere liburu honetan sustrai bila baldin badatorkigu.

Birtuteak eta akatsak

Liburu honek, gizonaren eskutik ateratako frutu guztiak bezala, bere birtuteak ditu, eta bere akatsak. Erromana bateko plater batean birtuteak eta bestean akatsak pisatzen baldin baditugu, lehena erortzen* baldin bada behera, gizonaren egintza ona dateke; eta zenbatenaz eta pizkorrago erortzen den, hanbatenaz eta hobe dateke. Eta Larresororen obra guztietan, haren hiru nobeletan (Leturia, Leartzako eta Elsa) eta batez ere haren saio-liburuan (Huntaz eta Hartaz), birtuteetako platera ez da behera amultsuki jausten edo eroso erortzen, supitoki eta terrepente egiten da amildu.

Ni nerau ez omen* naiz oso gizon lisontxaria. Ene aurpegi hasarratua (hala iruditzen zait, Pelay Orozkoren azken pitxikeriak irakurrita gero), atsoen ipuin izugarri bat bilakatu* omen da (guti barri, amek lo egin nahi ez duten haurrei* Aresti datorrela esan beharko diete). Fama hau sortu daulatenez gero, ez naiz hemen Larresororen laudoriotan hasiko, haren merezimendu mereziak aski* klar eta gora mintzo baitira berez. Alderantziz, haren akats batzuk harrotuko ditut, irakurleak ikus dezan, nola, guztiz harroturik ere, ez-gauza diren, apur amatxiñi eta axola-gabe diren, eta ez inola ere haren birtute birtutetsua hain gora aipatuak itzal edo desargitzeak.

Helburu bikoitza

Lehena hau da, eta funtsezko* gauza denez gero, liburuaren giharrari berari eta agian* idazlearen ideologiari dagokionez gero, ene iritzian akatsik larriena da. Liburuaren hatsapenean bertan honela baitiosku Larresorok: "...gure euskalkiok funtsean* bat egiten dituen ager-arazi eta ezagut-arazi beharra dago; eta, era berean, euskalki guztiok erderatik berezten dituen". Helburu bikoitz honek (hala dio berak) motibatu baitu liburua.

Helburuaren lehen partea txit ongi iruditzen zait, hori baita* euskeraren batasuna lortzeko bide bakarra, hizkuntzaren barreneko historia eta dialektoen arteko konparazioa. Baina bigarrena? Bildur haundia ukan* diet nik beti halako perpausei. Zeren euskera, berez, ba da ezer, edo ezer baldin bada, zer hori bakarrik erderaren funtzioan dea*? Dikotomia bat agertzen dauku hemen Larresorok: EUSKERA/ERDERA. Baina erderak milaka daude munduan, eta euskera bat bakarra dago, edo dagoela nahi dugu. Edo erdera dioenean, gaztelania esan nahi du? Mesedez, Gereñok esan dautan bezala, ez dezagun euskerarekin anti-erdera bat egin.

Huts xipi batzuk


Gainerako hutsetatik (arinagoak baitira*) gaingiroki eta azalez aipatuko ditut hiru:

Inperatibo etorkizuna (ikus 138. orrialdean EGIZU/EGIKEZU) bizkaitartzat ematen du, eta Mogelen eta Añibarroren esenpluak dakazkigu bakarrik. Euskera batu eta orokarrerako aditz-denbora hau proposatzen du, eta haren gutizia* zilegizat emateko da, baldin eta kontuan hartzen badugu lapurtarrez ere oso usantza haundikoa izan dela. Etxeberri Ziburukoak ugari ekartzen dauzkigu halako formak, eta Etxeberri Sarakoaren latin gramatikan ehundaka datoz, milaka ez bada.

Beste alde batetik ERITZI aditzaren konjugazioa gaizki dakar Larresorok: Honela baitio,* "deritzat" lehen pertsona datiboa dela; eta ez da horrela, adizki hori hirugarren datiboa eta lehen aktiboa baita.* Aditz horrek konjugazioaren joko guztia daduka aktiborako eta datiborako; baina pasiborako defektibo da, hirugarren pertsona plurala baizik ez baitu. Honela: NIK HIRI DERITZAAT (DERITZANAT), HARI DERITZAT, HIK NIRI DERIZTAK, DERIZTAN, HARI DERITZAK, DERITZAN, HARK NIRI DERIZT, HIRI DERIZK (DERIZNA), HARI DERITZA...

SUSTRAI BILA

larresoro



irakur sail

Desumoratzen nauen kapitalua

Beste kapitulu bat daduka Larresororen liburuak, ni, hasieran esan dudana bezala, desumoratzen nauena. Erdi-hasarre akaba dezadan neure kritika hau, baldin ENE/NEURE eta gainerako izan-orde pareen berezkuntza ukitzen* baldin badut. Berezkuntza hau, nahiz eta maiz plitkatu baldin bada, hizkuntzaren estudio reflexo batean ez da seinalatu inoiz, eta ene eritzian txit balio haundikoa baita* (latoizkoak baldin badira ere, erideleek* bere joia aurkituei urre finezkoak balira bezala baiterizteza), guztiz laudatzekoa lizateke gure Larresoro, baldin bera izan balitz eridete honen kausantea; baina nola ez den, ez da hain laudatzekoa, bakarrik jende gehiagoren belarrietara hel-arazi duelako gramatika-erregela hau. Ez dut honekin esan nahi, indi-paboaren hegatzek* bere burua hornitu nahi duen oilarra denik gure adiskidea; baina, beste kasu batzutan bezala, nondik hartua duen aipatu balu, ni ez nintzen izterbegitan muturtuko. Gainera NI/NEU eta gainerako pareen egiazko berezkuntzaz enteratuko zen. Dena dela, ba daki non nadukan.

ARESTIAR

Non egon behar dau idazleak?

IDAZLE BELAUNALDI BATEN ERIOTZEA

Ikasle ta intelektualen urteotako erreboltak auzitan jarri dabe idazleen kontzientzia politikazkoa. Alemanian iltzera doa «Gruppe 47», urte hareetako idazle belaunaldiaren* alkarte. Alkarte honetan batu zan, gudu ondoan, Alemaniako «intelligentsia», idazle kritika-zale taldea. Eta langileriak «Ruhr eskualdeko* Festa-Jakoetan» bere kultura nahia agertu ebanetik, al-karte honek batetik langileen interesak aldarrikatzen* zituan, eta bestetik, langileak eurak kulturaztatzea ere* beregain artu eban. Orain iltzera doa; eta idazleen artean bakarrik nabari* da mugimendua ta larritasuna. Langileak eta jendeak ez dabe zirkinik ere egin; honexek beronek erakusten dau, «Gruppe 47» alkar-teak zegaitik ez daukan il baino beste erremediorik.

Euskalerriatik begiratuta, ardura gutxikoa da berez, Alema-niako idazle alkar-te baten eriotzea nahiz bizkundera. Jazoera ho-nek, hala ere, narru gorri gorrian utzi dau Europa ta USA-ko idazle batzar guztietan sumatzen zan krisi bat; ta beharturik gagoz geu ere*, horretaz geure gogoetak barriro ausnartzera. Euskal-erri guztia eskuz esku ibilikoa bada, behintzat; geure ga-lerna gaitzean idazlea pribilejiatu bat izan ez daiten. Laburki adieraz leiteke krisi honen irakaspena: ez dago idazle «libre» bakarrik izaten segitzerik.

IDAZLE «LIBREAK»

Eredu* antzean, aparteko inportantzia euki dau gerra os-teko Europako literaturan, eta Mendebal* osokoa ere bai, Ale-maniako idazleen posturak. Nazismoaren ondakinaren artean eta komunismoaren eta kapitalismoaren arteko mugan sortutakoa izanik, literatura hau sutartean jaitzen zala esan leiteke. Egoe-ra pribilejiatua benetan, bide barririk urratu gura izan ezker-o. Ta ugaritasun bikainagaz abiatu zan, abiatu ere: Alemania ba-natua, bere alderdi komunista ta kapitalistagaz, eta Austria ta Suiza, euren neutralismo ezbardinakaz, izan ziran literatura ho-nen lurra. Eta ideologien eta esperientzien aldetik ere*, han egozan komunistak, judeguak eurak, eskoitiartsu amaika, exi-laturik ibilitakoak, eta abar; han egoan batez ere, nazismoaren eta guduaren esperientzia eginda gero, literaturara etorren be-launaldi* gaztea.

Belaunaldi honek ezagutu eban esperientzia gogoratu behar dogu lehenengo. Nazismoak idazleari eskatzen eutson «konpro-misoak», ezin eban idazlea gas ganbara ta konzentrazino zelaie-tara edo Nürnberg-eko Auzitegira amildu* baino besterik. Eta bardin antzeko autabeharra (alternatiba) ezartzen eutson idaz-leari komunismoak, Alderdian egon ezker-o. Holan, Moskuko au-zien eta Ungariako zapalaketaren ondoren, euren askatasuna ir-abatzen ekin eutsoen idazleak; eta, hain zuzen, behar beharrez-koa eban askatasun hori, euren idazle konpromisoa garbi ta saldukeria barik betetzeko.

Gutxienez surrealismoaren osteko unada* guztian dabil-tza idazleak, idazle «librearen» aldeko burrukan. Baina, narru gorria estaltzeko iko orri barik esanda, gizartean beste inok ez daukan pribilejio bat irabazi gura dabe horreek, artearen eta krea-tzailetasunaren atxakian anparatuta: erabateko* askatasun politikoa. Surrealistakaz zer jazo zan, ezaguna da: batzuek faxismora jo eban; komunismora beste batzuek (A. Breton, L. Aragon), ko-munismoaren barruan atzera* idazle «librearen» bila burruka-tzeko izan bazan ere. (Halantxe dabil egunotan Aragon, Fran-tziako Alderdi Komunistaren stalinismoaren aurka). Askatasuna ta konpromisoa alkar-tea ez da idazlearentzat erraza.

«GRUPPE 47» IDAZLE TALDEAREN GALBIDEA

Alemaniaren alde biak arturiko politikazko bide kontrarioa-kaz, idazlerik gehienak —Brecht bera ere— Sortaldearen eta Sartaldearen artean gelditu ziran: idazle bakoitza, bera bizi zan aldeagaz zeharo bardindu ezinik eta erri zati bat falta balitxako bezala. Alemania Federaleko «Gruppe 47» gizartearen bazter batean geratu zan, eta handik dispartzen zituan eten barik gi-zartearen aurkako bere kritika gogorrenak. Nazinoaren «kon-tzientzia» bihurtu ziran idazleok, eta, Eliza nahiz Alderdiren ba-tegaz lotuta egon barik, euren oposizinoa sortu eban. Soluzinorik ederrena zirudian honexek. Idazleak ez egozan inori azpiratuta;

primerako aukera euken, gizartearen antolaketa barrian libreki ibiltzeko. Kristinau demokratik (CDU, Adenauer-en Alderdikoak) ezin jasan* eban idazlerik, honeek ikaragarriko astinaldiak emoten eutseezan eta.

Baina hortxe asten da, euren alde onik onenean, idazle be-launaldi honen galbidea ere: gizartearen barrura sartu barik egin eban idazleok euren oposizinoa. Zeharo libre izateagaitik, gizartearen bazterrean geratu ziran. Obeto esan, gizarteak utzi zituan bazterrean, ta neke andi barik utzi ere, ekonomiazko go-raldiaren beroan. Idazleen zerikusi ta eraginik barik eratu da gudu osteko Alemania, bai sozialki eta bai politikalki. Gaur idazleen oposizinoa, karnabalak eta zirkoa legetxe*, gizarteko ituzituzino bat gehiago izatera eldu da. Idazleak edozer gauza ta edozelan esan daike; idazleren batek esan ezker-o, normala dirudi, eta ez da inor larritzen. Gizartearen errotak birrintzen dau idazleen oposizino guztia: idazlearen uste politikazkoak ere haren eritxi estetikazkoen parte lege-z artzen dira.

Ez da holan jazoten diktadurazko errietan. Honeetan adie-razpide guztiak galerazoten jakoz idazle kritikaliari, danok da-kigunez. Baina honek ere ikasi daike bestearen egoeratik, bere ezintasuna zelan gainditu*.

ASKATASUNA TA KONPROMISOA

Problema andi bat jarri jake Alemaniako idazleei: alfer al-ferrikakoa dala ikusi dabe, euren «txoko librean» geratu ta handik idazle uts lege-z ilargiari zaunka ikaragarriak egitea. Ale-mania Federaleko «Gruppe 47»-ren antzera dagoz, hala ere, Sar-tre, Ionescu, Arrabal, Dali ta besteak, folklore numero bihur-tuta, kontsumo gizartearen. Gerra ostean, aurrerapen bat zan Al-derdirik bako idazle «librea» izatea; baina, ogeitabost urte ge-roago, idazlearen libertatea bakartadean geratu da.

Euren konpromisoa Alderdi nahiz Elizaren bategaz lotuta euken-idazleak idazle «libre» izatera pasatu ziran lege-z, orain idazle artisano izatera pasa-beharra aipatzen da gaur, konpro-misoa ta askatasuna galdu brik, idazletza zerbaiteko izan da-din, eta ez jendearen asperraldiak dibertitzeko bakarrik. Arti-sano izateagaz, idazlearen konpromiso-modua adieraz gura da; Durer-o, Riemenschneider eta abar artista artisano erreboluzino-zaleak izan ziran eta. Alde bi markatzen dira hemen.

Lehenengo: idazlea, ideia zabalkundetik ekintza politikaz-kora ta sozialera pasatzeko preminan aurkitzen da. Ekintza ho-nek ez leuke idazlea ostera* ere Alderdiren baten altzora ero-ango, haren tresna obedient bat izateko; baina ez leuke Alder-dien politikatik zeharo apartatuko ere. Günter Grass, adibidez, Alemania Federaleko Alderdi Sozialista (SPD) baino askoz ere ezkererago dabil bera; baina beste barik ezin leiteke esan SPD-koa danik. Auteskunde kanpainetan SPD-ren alde aritu* da; baina gero bere bidetik jarraitzen dau bere ekintzan.

Bigarren: idazle «libreak» ekarri daben politika-zale «pri-batua» ere kritikari azpiratuta dago. Ez dago norberak bakarrik artutako politikazko konpromisorik. Eta idazleak euren artean sortu dituen politikazko eritxi ta usteak ere zatikazko edo frag-mentario geratzen dira. Gutxi balio dabe, beraz, gizarteari po-litikazko erabagirik artu eragiteko, gorabehera bakanen batzue-tan izan ezik. Orain idazleari ez jake ezkatzen ez programarik ez soluzino eskemarik. Baina bai, politikazko egoera osoari ta konkretuari begira konprometidu daitela, erriaren konpromiso andi-ago baten barruan engaiatu* ta saiatu dadila.

Honegaz ez da ukatzen idazlearen libertatea, hau da, bere burua inori saldu barik Alderdien gainetik egotea. Idazle «utsa-ren» asmoak dira erretekoak. Izan ere, idazle askok, eta bardintsu artistak, errazegi ebagitzen ditue alde banatara euren burua ta euren obra edo lana. Eta idazlearen «hipostasi» bat sortzen dabe, hau euren barruko bigarren nortasun bat balitz lege-z, ta hemen ezartzen dabe euren politikazko eginkizun guz-tia. Ba dirudi, jokabide hau ikusirik, erantzukizuna* doroan «po-litikazko erriarra» ez dala idazlea, bere liburu-baino. Baina autore baten erantzukizun politikoa ez da amaitu, liburu poli-tikoak egin eta gizartera bidaltzeagaz.

Jose Azurmendi

BIZKAIERA IDATZIAREN BATASUNA

"ANAITASUNA" ALDIZKARIRAKO

[1970]



Orain urte bete, erregela batzuk argitaratu genduzan, aldizkari honetan erabiltzen dan bizkaierari batasuna emateko. Orain bigarren pauso bat eman gura dogu, geldiro geldiro euskera baturantz joan gaitezen.

Igazko erregelarik gehienak lehengo legez utzi dira. Beste batzuk, berriz, aldatu egin dira. Hona hemen aldatu direnok:

I. IDAZKERA

1. Oso osorik onartzen da Batasunaren Kutxan agertzen dan euskal ortografia.
2. Danez gero, dogunez gero, dakianez gero, eginez gero, ikusiz gero, eta abar. Eta ez: dan ezker, dogun ezker, dakian ezker, egin ezker, ikusi ezker, eta abar.

II. HIZTEGIA

3. Oinarriztat hartzen da Batasunaren Kutxan agertzen dan hiztegia.
4. Bizkaierazko berbak eta euskera batukoak sustrai berrekoak eta berdin antzekoak direnean, azken honek erabiliko dira. Hala ere, kasu batzuetan aldizkari honen zuzentzailearen eskuetan uzten da hitzon aukeramen.

III. DEKLINAZIOA

5. Oinarriztat hartzen da Batasunaren Kutxan agertzen dan izen eta izenordekoen deklinazioa.
6. A letrarekin amaitzen diren hitzek, artikulua hartzen dabenean, ez dabe inoiz. EA egingo. Eliza, elizaren, elizari, eta abar. Eta ez: elizea, elizearen, elizeari, eta abar.
7. GATIK atzizkia erabiliko da, eta ez GAITIK. Nigatik, horregatik, eta abar. Eta ez: nigaitik, horregaitik, eta abar.
8. GAZ eta KAZ atzizkiak ez dira baztertuko. Gizonagaz, gizonakaz, eta abar.
9. Izenen pluraleko nominatibo aktibo determinaduen atzizkia EK izango da. Horko gizonak egin dabe hori, semeek maitatu egin behar ditue gurasoak. Eta ez: horko gizonak egin dabe hori, semeak maitatu egin behar ditue gurasoak.
10. NOR, INOR, ZER, EZER. Hitz honeetan agertzen dan R ez da galtzen, GAZ atzizkiaren aurrean izan ezik. Nork, zerk, inork, zergatik, zertarako, eta abar. Baina: nogaz, zegaz, ezegaz, eta abar.
11. HARK eta HARTAN barik, HAREK eta HARETAN erabiliko dira.
12. BAT hitzaren inesiboa BATEAN izango da beti. Etxe batean, herri batean, eta abar. Eta ez: etxe baten, herri baten, eta abar.
13. Preferentzia emango jake parentesi bako formei:
 - honi (honeri), horri (horreri), Jesusi (Jesuseri), bati (bateri), elkarrri (elkarreri), eta abar.
 - Eibarrera (Eibarra), Zarautzera (Zarautza), Burgo-sera (Burgosa), eta abar.

IV. ADITZA


14. Aditzaren forma batzuek, N edo LA atzizkia daroenean, A edo E hartzen dabe atzizkiaren aurrean.
 - a) Intrantsitiboetan E hartzen dabe:
 - forma guztietan, pluraleko ZU-renetan izan ezik. Dagoen, dagoela, datozen, datozela, gaitezen, gaitzela, naizen, naizela, eta abar. Baina: zoazan, zoazala, zatozan, zatozala, zentozan, zentozala, zaitezan, zaitezala, eta abar.
 - E horren aurrean A bat badago, A hori galdu egiten da. Diren, direla, nintzen, nintzela, ziren, zirela, ginen, ginela, garen, garela, eta abar.
 - b) Trantsitiboetan A hartzen dabe. Dakian, dakiala, dituan, dituala, eta abar.
15. Goiko erregela hau ez da beti betetzen.
 - Dan, dala, zan, zala. Eta ez: den, dela, zen, zela.
 - Pluraleko ZU-ren flesioetan IZAN aditzak E hartzen dau. Zaren, zarela, zinen, zinela.
 - JOAN aditzaren A-ren atzean. Doan, doala, noan, noala, eta abar.
 - IBILI aditzaren TZA-ren atzean. Gabiltzan, gabiltzala, dabilzan, dabilzala, eta abar.
 - EKARRI aditzak E hartzen dau R-ren atzean. Dakarren, dakarrela, nekarren, nekarrela, eta abar.
16. Nintzateke, hintzateke, lizateke, gineteke, zinateke, zinateke, lirateke (lizatekez). Eta ez: nintzake, hintzake, litzake, eta abar.
17. Parentesi bako formak bakarrik erabiliko dira: Ditut (dodaz) dituzu (dozuz), ditu (dauz), ditugu (doguz), dituzue (dozuez), ditue (dabez), nituan (nebazan), zituan (ebazan), zituen (ebezan), banitu (baneuz), balitu (baleuz), balitue (balebez).
18. IBILI aditzaren pluraleko formetan beti agertuko da TZA, Gabiltza, zabilta, dabilta, eta abar. Eta ez: gabiltz (gabiz), zabilta (zabiz), dabilta (dabiz), eta abar.
18. Aditz askok TEN atzizkia hartzen dabe bizkaieraz, eta TZEN beste euskalkietan. Atzizki biak erabili daitezke, baina bigarrenari emango jake preferentzia. Etortzen (etorten), ibiltzen (ibiltzen), imintzen (imintzen), irakurtzen (irakurten), eta abar.

Imanol Berriatua

ANAITASUNAREN ZUZENBIDE BARRIA

Irailaren 15-ganean asita, ANAITASUNA hau Bilbon argitara emongo da ta bere zuzenbide barria Jardin Txikerra 1-1 da. (G. Belpardatik, P. de Alzolan Barrena). Egun horretatik aurrerantz, 4 orrialde gehiago izango ditu, tamainoa zabalago ta papera zuriago. Urteko ordaina 150 pezeta izango da.

Sony da
ametsaren izena



**Telebistarik
arinena,
Eskurakoiena
(Atzamar bategaz
eustekoa)**

SONY edozein tokitarako
da
SONY, 4 kilo t'erdikoa
SONY, 9 arrako pantailaduna
SONY, iru senti-giltzaduna
SONY, aurrean jarritako abots gehitzaileduna
SONY, tximist - indarrez nahiz bateriaz erabiltekoa
SONY,-k lau letra ditu:

SONY

Bilboko ordezkari: **J. M. Lara** - Fica, 8 - Tel. 23 96 42

Donostiako ordezkari: **A Mendizabal Obanos** - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10811

Division Aud visual: Telebista aparatuak, magnetofono ta videotape-rako ornidua.

Division Sobax: Elektro kalkulatzalle eskurakolak.

ONGARRI Pentzuak

S A R B - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsatu ondo zure ganadua.
Burubako egina, alperreko ekina.
ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.
ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:

ONGARRI, S. A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Telefono 11

Euskal Kantari Barriak



EUSKAL
ABESTIAREN
III
SARIKETA



MAITE IDIRIN



ARRATIKO KORUAK



Imprenta IDEAL

Bengoetxe - GALDAKANO

idazkirik onenen

serbitzurako irarkola

BIZKAIKO AURRESKI KUTXAK Bilbon eta Probintzi guztian, laguntzarik zabalena emoten dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako :

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao

Teléfono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako erririk naguzienetan 70 etxeordezko

Madriko agentzia: I. C. C. A. Alcala 27

Tel. 2 21 49 95

ANAITASUNA - ren Lehenengo INKESTA

ANAITASUNA-k erriaren aldizkari bat izan gura dau, eta hori lortzeko beharrezkoa iruditzen jaku erriarekin bat eginda bizitzea.

Zeuk eta geuk osotzen dogu erria. Guk, ANAITASUNA-n idazten dogunok, amabostero azaltzen doguz gure eritxiak, baina zuek ez dozue ezer esaten. Ez dakigu, beraz,* zer pentsatzen dozuen.

Alkarren artean batuago egoteko, alkarrizketa bat beharrezkoa dogu, zuen eritxiak zeintzuk diran jakiteko; ta horretarako biderik egokiena dala uste izan dogu zuen artean inkestak* egitea.

Hemen doakizue lehenengo inkesta, eta, zuen artean sistema honek arrera ona badauka, urrengoan beste inkesta batzuk egingo ditugu.

Interesgarriak iruditzen jakuzan galderak* egingo ditugu, eta zuen erantzunak ANAITASUNA-n argitaratuak izango dira.

Zuetariko zenbat eta gehiagok erantzun, hainbat obeto, inkestari balio aundiagoa emongo deusazue ta. Atera eizue galderen kopiak, eta erantzun erazo eioezue zeuen etxekoei eta adiskideei.

Hona hemen lehenengo inkesta:

Erantzulearen datuak

Urteak
Sexua
Ezkondua?
Non eta zer ikasi zenduan?
Zetan lan egiten dozu?

Anaitasuna aldizkariak

1. Zeintzuk dira gure aldizkarian gehien gustatzen jartzuzan gaiak?
2. Zer kenduko zeunskio ANAITASUNA-ri?
3. Zer gehituko?

Erlijinoaz

1. Fededuna zara?
2. Atsegin dozu liturgia barrira?
3. Ondo ikusten dozu abadeak sotana barik ibiltzea?
4. Ondo ikusten dozu fraile ta monjen kolejoetan euskerarik ez erabiltzea?
5. Joaten zara euskerazko mezetara?

D) Literaturaz

1. Zenbat ordu emoten dozuz ilero, euskeraz eta erderaz irakurtzen?
2. Zenbat, euskeraz bakarrik?
3. Zenbat liburu irakurtzen dozuz ilero euskeraz?
4. Ze liburu klase gustatzen jatzu gehien (poesia, bert-solaritza, nobela, saiakerak, eta abar)?

E) Ikastoletaz

1. Ba dozu amar urtetik beherako semerik?
2. Nora bidaltzen dozuz semeok (euskal ikastolara, kolejiora ala eskola nazionalera)?
3. Euskal ikastolara badoaz, pozik zagoz?
4. Pozik ez bazagoz, zegaitik?
5. Euskal ikastolara ez badoaz, zegaitik ez dituzu horra bidaltzen?

Erantzun eizu ahal dozunik gehien, eta bidaldu erantzunak, zure izena jarri barik, zuzenbide honetara: ANAITASUNA, Jardín Chiquerra, 1. Bilbao (12).

Mila esker aurretiaz.

ANAITASUNA

IKASI ZURE IZKUNTZEA

IDAZTEKO MODUA

Txarto:

Esplikatu dodana ispilu zuzen izan dadin gura neuke. Nortzuk uts egin ote dabe, hareek edo guk?

Ondo:

Esplikatu dodana ispilu zuzen izan ledin gura neuke. Nortzuk uts egin ote dabe, hareek ala guk?

BERBAK

(Ale honetan izartxu bategaz agertzen diranak)

AGIAN, beharbada.
AMILDU, goitik beheratu, arin jausi.
ALDARRIKATU, proclamar.
ALTZEIRU, gaitzairu, acero
AREATZA, Villaro.
ARI IZAN, jardun.
ARITU, ari izan, jardun.
ASKI, nahiko.
ATARRATZE, Tardets.
ATZERA, barriro.
AZKON, dardo.
BAITA, bait da, da ta.
BAITIO, bait dio, dino ta.
BAITIRA, bait dira, dira ta.
BAITOA, bait doa, doa ta.
BAITZAN, bait zan, zan eta.
BANAZEAN, norbera bakarrik, a solas.
BERAZ, hori dala ta, por consiguiante.
BEREIZI, separar.
BEREZIKI, batez bere.
BILAKATU, bihurtu.
DEA, ai da?
DUA, al du?
EGITEKE, egin barik.
EGUNKARI, eguneroko periodiko.
EKAIN, junio.
EKIALDE, sortalde, Este.
ENGAIATU, konprometidu, s'engager.
ERABATEKO, oso, completo.
ERAITSI, ordenar.
ERANTZUKIZUN, erresponsabilidate.
ERE, bere, be.
EREDU, erakuspen, modelo.
ERIDELE, eriden (aurkitu) egiten dauana.
ERORI, jausi.

ESKAINI, eskini, eskeini, ofrecer.
ESKUALDE, comarca.
FUNTSEAN, fundamentalmente, en el fondo.
FUNTSEZKO, inportantziatzko.
GAINDITU, gainetik pasatu, superar.
GALDERA, itaun, galde, pregunta.
GEZI, flecha.
GUTIZIA, gurari, deseo.
HARAN, ibar, valle.
HAUR, ume.
HEGATS, luma, pluma.
HELBURU, fin, objetivo.
HURBILDU, urreratu.
IGANDE, domeka.
INKESTA, encuesta.
IRAIL, septiembre.
IRUDIOZ GAIN, irudi horreez gainera.
IRURI, Trois-Villes.
ITAUN, galde, galdera, pregunta.
JADANIK, ya.
JARITXI, lortu.
JASAN, jaso, soportar.
JAUZI, salto.
KONDAIRA, historia.
LARRI, aundi.
LEGETXE, bezalaxe.
LIGI, Licq.
LIZARRA, Estella.
MAULE, Mauléon.
MENDE, siglo.
MENDEBAL, sartalde, Occidente.
MUINO, mendi txiki, colina.
MUINO, colina pequena.
NABARI, agirian dagoana, agertua.
OHARTU, konturatu.

OLA, lantegi.
OMEN, ei.
ONURAGARRI, probetxugarri.
OSTERA, barriro; barriz; ibilaldi, viaje.
SUKARRI, pedernal.
TAMAL, pena, lástima.
UDAL, Aluntamentu.
UKAN, eduki, euki, izan.
UKITU, ikutu.
UNADA, denboraldi, bolada.
URIGINTZA, planificación urbana.
UZTA, cosecha.
UZTAIL, julio.
XARMANGARRI, zoragarri.
ZALANTZA, duda, ezbal.
ZENBAIT, batzuk.
ZILEGI, licito.
ZIZTOR, estalactita.

ANAITASUNA

BIZKAIA, Amabosterokoa, 15

Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasa.

Jabea: Kantauriko Frantzizkotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.

Idazkola ta banakola: Bengoetxe, 33-b, Galdakano. Tel. 396 eta 397.

XVIII-gn. urtea. 194 zenb. 1970,

Abuztuak 30

D. L. Bi. 1.753-1967.

Inprimatzen dau: Inprimenta IDEAL-ek, Galdakango, Bengoetxe, 70.

Irtzen dau: RALI

A I A L A

Arabak, bere Ipar-Mendebal* aldean, ba dau eskualde bat, izen jator eta historikoz AIALA deritxona.

AIALA-k, geografiaz eta baita bere lehenengo denboretan Bizkaikoa, gaur ere* artuemon gehienak Bilbogaz ditu eta ez Gasteizegaz.

Arabako eskualde* antolaketa barrian "Cantábrica Alavesa" deitzen jako, hain zuzen ere, AIALA izena mendeetan* eroan dauan erri taldeari. Aintzinako talde edo "cuadrilla" hau, anaiarte edo "hermandad" honeetan banatuta egoan: *Laudio*, bere auzoekin; *Arrastariako arana*,* lau errirekin: *Tertanga*, *Delika*, *Artomaña* eta *Aloria*; *Artzeniegako uria*, bere auzoekin; *Urkabustaizko anaiarte*; eta *Aialako anaiarte*, bost zatitan banatua: *Axpe (Sopeña)*, erri honeekin: *Arrespalditza*, *Maroño*, *Lexartza*, *Menoio*, *Agiñiga*, *Añiz*, *Madaria*, *Ozeka*, *Salmanton*, *Soxo*, *Luxo* eta *Erbi*; *Lezama*: *Etzegoien*, *Baranbio*, *Larrinbe*, *Astobitza*, *Lekamaña*, *Lezama*, *Saratxo* eta *Izoria*; *Amurrio*: *Murga*, *Olabezar*, *Luiando* eta *Amurrio*; *Llantenoko Kexana*, *Menagarai*, *Kostera*, *Mendieta*, *Llantenoko Retes*, *Tudelako Retes*, *Santa Koloma*, *Soxogoiiti* eta *Llantenoko*; *Okendo* edo *Okondo*: *Beotegi*, *Zuazta* eta *Okendo*.

Gaurko Diputazioaren eskualde* antolaketan, Urkabustaiz hemendik kanpoan gelditzen da, baita elizbarrutiko zatiketan ere. Erdi Aroan* ere ez zan AIALA-koa; uste denez, geroago, XVI. mendean* alkartu zan berorregaz. Gainera, esan behar dago Urkabustaiz gehiena ez dala Kantauri aldekoa, Ebro aldekoa baino, eta beste erri guztiak bai. Beraz,* guk ere, zirkunstantzia honek ikusita, eskualde historiko honetatik ateratzen dogu Urkabustaiz, eta Gorbea aldekoan sartu.

Guztitarra AIALA eskualde honek 365,85 km.² eta 26.699 bizilagun daukaz, bertan Orduña sarturik, ze enklabe hau oso osoan esan geinke eskualde honetakoa dala. XVIII menderarte, Orozkoko aranak ere* ba zituan lotura batzuk AIALA eskualdeagaz; eta gaur ere ba ditu artuemonak, batez ere *Laudiogaz*, *Beharbada*, beste zatiketa razionalago batean, eskualde hau, *Orozko*, *Arrankudiaga* eta *Orduñagaz*, *Laudio* uriburua dala, egokiago eta batuago egongo litzake.

Bilbo aldera doazan ibaiak igarotzen dira bertatik: *Nerbion*, *Altube* ta *Izoria*; *Okendo*, *Llantenoko* eta *Artzeniega*. Egualdetik *Garobel* mendikateak inguratzen dau, orain "Sierra Salvada" txarto deituak; eta *Ekialdetik*,* *Altubeko muinoak**. Eskualdeko mendirik andienak: *Iturrigorri* (1.066), *Eskutxi* (1.178), *Ungino* (1.094), *Urieta* (1.113), *Txarlazo* (972), *Ganekogorta* (998) eta *Kamaraka* (782).

OKERRAK ZUZENTZEN

Gure azken zenbakian (193-gna.) "Lingüística ta euskera" izenez agertu zan artikuluan, "lapsus" bat izan genduan. E. U. T. G.-en izan zan ikastaroan (Altunak antolatua) bi ikastaldi zituan egunero, baina 100 pezeta eta ez 200 egunero.

Bestaldetik, K. Errotaetxek bidaldu euskun artikulua argitara emon gendua baina askoz luzeagoa zan, Baionako Astea eta Donostiako itzaldiak astertuaz. Beste barri batzuen artean, prezioa ere emonaz: Baionan egunero 200 lau klase, janaria, logelak ordaintzeko. Donostian, barriz, egunero ehun pezeta, ikastaldi bi ordaintzeko. Baina artikulua luzeegi izanez ezin izan genduan sartu osorik. Egia esan K. E.-ren artikulua ez zan azi prezioa emonaz.

Eskualde honek ba dauka berezitasun bat aipatu beharrezkoa: bere forua. Jatorriz bertakoa zan Jesus Galindezek bere "tesis doctoral"-ean azaltzen dauanez, foru hau besteetatik desbardina da, eta, beste gauza batzuen artean, seme-alabak deseredatzeko eskubidea emoten dau. Artzeniega urian izan ezik, eskualde guztian legeak onartzen dau eskubide hau gaur ere.

AIALA aldea gehienbat baserri ekonomiari lotua izan arren, Gasteiz kendu ezkerro, industriarik gehien dauana da, batez ere *Laudio* eta *Amurrio*. Ia ehun ola* eta lantegi dira, txiki eta andi, eskualde honetan.

Baserrira barriro itzulita, ehuneko 13,84 lur landua da, 33,91 % landa eta larrea, 46,58 % basoa, eta 5,67 % produzino bakoa. Baina oso arlo txikietan banatuta eta indibidualki gainera, produzino sistema barritzatu baten premia gorrian. Ganadutza ere* polito dago: ia 10.000 abelgorri,* 20.000 inguru ardi, 600-dik gora ahuntz, beste hainbeste asto, eta 300-dik gora zaldi-behor. Beste toki gehienetan bezala, hemen ere eskualde kooperatiba batek bere lana egingo leuke, erdizka baino ez bada ere.

Industriari begira, *Laudio* da buru, altzeiru* eta kristal olekin, eta *Areta* auzoan ardo olekin. Beste lantegi txiki ugari ditu, eta gaur erri hau da industria eta ekonomian dinamikarik gehien dauana. *Amurrio* eta *Orduña* ere ba dira ola eta lantegi batzuk, eta bion artean dagoan *Luiando* ere bai. *Arrastaria* aranean,* *Babcock-Wilcox* industria astunak lur batzuk erosiak ditu, ola barri bat egiteko. *Okendon* bost zerra eta txorizo ola bat aurkitzen dira, beste lantegitxoren bat aparte.

Eskualde honetatik igarotzen da, Bilbotik *Barcelonarako* trenbidea; eta, beharbada, ba leiteke autobidearen adarra bere ertz batetik igarotzea. Beste bideekin nahiko ornduta dago; eta puntu honetan Arabak dauan fama hemen ere ikusten da.

Eskualde zerbitzurik ia batere ez dauka, auzitegi eta horrelakoren batzuk *Amurrio* diranak kendu ezkerro. Erri hau da, eskualde honen gaurko uriburua; eta, hain zuzen ere, bertatik kilometro t'erdira dago *Saraube* izeneko *Batzar* lekua: beraz,* *AIALA*-ren bihotza, *Gernika*, *Gerediaga*, *Uztaritz*, *Arriaga*, *Urreztieta* (*Avellaneda*) eta beste batzuen antzera. *Muiño** baten gainean, orma baten inguran, arrizko aukli batzuk eta mahai bat erdian, *Batzar* leku hau benetan da toki interesgarria, baina bai ganora barik gordea ere. Gaur ere orma barruan oilategi bat dago, *Aialarren* eta Arabako Diputazioaren latsagarriako. Horrelan erakusten dogu gure gauzen ganako maitasuna.

Eskualde honetako urigintza* egiteke* dagoanez, puntu hau ezin dogu asko ikutu. Bakarrik esan geinke, dirudiane, erri gutxi batzuk aziko dirala, eta, beharbada, azitze hori armonizazio batean oinarritzeko asmoa dagoala, besterik ez.

Azkenik, izkuntza arloan, gaur euskerarik ez da entzuten; baina, esate baterako, joan dan mendean* egiten zan. Hain zuzen ere, eskualde honetakoa zan *Jose Paulo Ullibarrikoa*, *Okendoko* semea eta ikastola eta izkuntzaren ofizialtasunaren lehenengoatariko argitzaile eta asmatzailea. Igaz *Aita Akesolok* gizon honi buruz *Gasteizen* egin eban itzaldia, benetan da jakingarria. "Boletín Sancho el Sabio" dalakoan agertu barria da. *Aialar* ospetsu honek esango ahal deutse zer bait bere gaurko anaiel